

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Sudurretik urrunago

BEREN BIZITZA, besteak beste, usain berezi bat asmatu, sortu eta garatzera ematen dutenak miresgarriak zaizkit. Landareez ari naiz, jakina...

Usaina duten landareek badute, animalion sudurretik, aparteko xarma. Kolorea, eitea, izaera eta forma erakargarri gutxi balitz, usaina. Usaina nonahi: hazian, fruituan, lorean, hostoan, azalean, egurrean... Landare batek hurbiltzea eskatuko digu, beste batek gu uxatzeko bere bizikoak eta bi kino egingo ditu. Gure sudurra baino urrunago ikusten du landareak...

Neuk ere, aspalditxoan, okasioetarako, usain berezia daramat azalean: ez neurea, landare nahasketa xeble baten usaina. Frantzia (Quercy, Touraine...) jaio baina Argentinako Euskal Herrian, Mendozan, garatu eta heldu den mahatsondo, *Vitis vinifera*, bat du oinarri: Malbec aldaera. Haren ardoak, kolore beltz eta tanino artean, fruitu gorrien usainak oroitarazten dizkigu. Tangoaren herriari ez zaio alferrik Malbecaren herria ere deitzen. Frantzia halako hogeituzetarik eskaini diote han. Argentinan adina ez baina, auzoko Brasilen ere mahats hori lantzen dute. Ardo edontzitik harantzago joan dira sanbaren herriari: lurrin bat eginga dute. Malbec mahatsa sudurrerako soilik. Ardo destilatuta bereizitako alkohola haritzezko barriketan ontzen dute. Frantziar haritzezko barriketan. Ardo alkohola erabiliz sortu den lehen lurrina da. Ardoaren lurrina deitzen diote. Arana, haritza eta banilla lurrin-



BANGIN-CC BY SA

Vitis vinifera.

gaiak ditu oinarri eta gizonezkoentzat omen da... Alain de Mourgues ospetsuak sortutako ardo botila itxurako ontzi aproposan datorren Malbec hau Napoleão Bastos lurringileak asmatua da. Eta honela zehazten du: usain familia: zurkara; muinean: musketa, goroldioa, anbara eta benjoia; gorputza: Virginia-ko zedroa, patxulia eta Malbec; abieran: Pertsia-ko lima, andere-mahats beltza, bioleta hostoak, Bergamota udarea, limoia, mandarina, kardamomoa, piperbeltza eta Libanoko zedroaren hostoak.

Nahasketan izango du xarma. Harrapazan/k atzeko hankatik lepoan hori dena daramana... Jendea zerk limurtzen, zerk liluratzen, zerk seduzitzen du gehien: ardoak ala lurrinak? Euskalduna ere bai?



55 milioi

Science aldizkari ospetsuak 2009an artoaren (*Zea mays*) genomaren segida argitaratu zuen. Artoaren miaketa ez da horretan amaitu, baina. Ez da alferrik munduan gehien egiten den landarea, diru gehien eragiten duena, alegia. Bai, gariak (*Triticum aestivum*) edo arrozak (*Oryza sativa*) baino gehiago.

Miatuz, miatuz, gero eta atzerago topatzen dute etxekotutako artoa. Orain diotenez artoa lantzen dugula 10.000 urte badira. Eta harantzago joan dira *Nature genetics* aldizkarian azaldu berri denez: arto basatitik gaur egungo arto aldaera aukera izugarrirainoko bidean, milaka urtetan eta hainbeste tokitan lantzeak, artoak bere genetika aldatzea ekarri du. Aldaketak 55 milioi izan omen dira, mutazio zehatz eta bereziak, hau da teknikoki "nukleotido bakarreko polimorfismoak" deitzen direnak.

Hori hala bada, batez beste, 10.000 urtetan egunero-egunero hamabost bat mutazio genetikoko burutu ditu artoak. Ez da nornahi, alajaina!



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

VIVEROS

Fadura

Konifera eta zuhaixken
produkzioa eta lorezaintza

Mota guztietako
zuhaitzen salmenta

Larrañazubi bidea, 15 · 48640 **BERANGO** (Bizkaia)
fadura@hotmail.com · Tel. 618 86 63 41 - 657 79 08 11